BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

868

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 14koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (298/2013-R prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (298/2013-R prozedura laburtua), honako honen aurkakoa da: Herrizaingo Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2011ko apirilaren 4ko Ebazpenaren deuseztasun-akzioaren ustezko ezespenaren aurkakoa. Ebazpen horren bitartez, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Herritarren Segurtasuneko ofizialondo kategorian karrerako funtzionario izendatzen dituen 2011ko martxoaren 28ko Ebazpena Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-oholean jarri deneko data jakinarazten da (2008ko martxoaren 6ko EHAA, 47. zk). Eta Administrazioarekiko Auzien Bilboko 6 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkaute, 2014ko otsailaren 14a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.